

BA AL DAKIZU 5 URTEAN 255 SALTOKI IZATERA IRITSI GARELA GETXOKO EUSKARAREN LAGUNEN SAREAN?

MARTXOKO
ALE BEREZIA

2023



Getxo
bizi ezazu
Euskara Zerbitzua

**SAREAK ZUBI-
LANA EGITEN DU,
EGUNEROKOAN EUSKARA
DARABILTEN BEZEROEN
ETA NEGOZIOEN ARTEAN**

255 enpresa, euskara egunerokoan zaintzen dutenak eta beren negozioetan, errotulazioan, erakusleioan, bezeroekin, hornitzaileekin... erabiltzeko ahalegina egiten dutenak.
255 enpresa, euskararekiko konpromisoa sinatu dutenak.

*Euskararen laguna
saltokia
Comercio amigo
del euskera*



Kontsultatu mapa interaktiboa eta ezagutu Getxoko Euskararen Laguna Saltokiak

www.getxo.eus/euskararenlaguna

Getxoko herritarren %33,53 euskaldunak dira, eta %23,12 ulertzeko gai. Guztira, 40.000 biztanletik gora

Zure erosketetan, izan zaitez ahobizi!
Sorpresa atseginak hartuko dituzu!

255 establezimenduk osatzen dute Euskararen Laguna Saltokien Sarea



UNAI

Igeldo Burdindegia
Romo

**ZERGATIK EGITEN
DUZU LEHEN HITZA
EUSKARAZ?**

Egunero jendea euskaraz agurtzean konturatzen naiz uste baino gehiago direla euskaraz egiteko gai. Badakite ni euskalduna naizela, eta gero eta bezero gehiago zuzentzen zaizkit euskaraz.

Harri Tabernako
bezeroa
Andra Mari

**NABARI DUZU EUSKARA
GEHIAGO ERABILTZEN
DUZULA EROSKETETAN?**

Esango nuke nabaritzen dela azaleko erabilera handitu dela, batez ere agurrak eta horrelakoak. Baina gero, sakonean, elkarrizketak euskaraz mantentzeko lan handiagoa egin behar dugu. Dakigunok gehiago erabili beharko genuke.



ARI



IZASKUN

Ajuria Taberna
Algorta

**KAISHOP BEZALAKO
EKIMENEK LAGUNTZEN
DUTE?**

Euskarazko kontsumoa bultzatzen laguntzen dute, jendeak kanpaina ezagutzen badu gehiago animatzen da euskaraz egitera. Garrantzitsua da herritar gehiagok ezagutzea ekimen hauek.

Perretxiko Haurreskolako
bezeroa
Areeta

**ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU
MERKATARIENTZAT UDALAK
DITUEN ZERBITZUAK?**

Ondo, lagungarriak dira. Ikusten da Udalak sektorea laguntzen duela, eta beste lekuetan baino familia-saltoki gehiago ditugula. Euskararen Txantxangorri asko ikusten dira kaleko negozioetan. Hobetzeko tartea izan arren, eskertzen da egindako lana.



IKER

EUSKARAREN LAGUNA SALTOKIEN SAREAREN EGOERA

ESTADO DE LA RED DE COMERCIOS AMIGOS DEL EUSKERA


Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak

sareko kide diren establezimenduen jarraipena egiten du urtero, konpromisoen betetze-maila neurtzeko. Hauek izan ziren emaitza aipagarriak:

- **Euskararen Lagunak** diren saltokien **%75ek bezeroei euskarazko arreta** eskaini diezaiekete.
- Establezimenduen **hizkuntza-paisaiari** dagokionez, **%35ean** euskarak **presentzia nabarmena** du (8-10eko puntuazioa, 0tik 10era). 5etik gorako puntuazioa du %75ek.


El **Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Getxo** realiza un seguimiento anual de los establecimientos que forman parte de la red, para medir el grado de cumplimiento de los compromisos adquiridos. Estos fueron los resultados destacados:

- En el **75% de los Comercios Amigos del Euskera** pueden atender a su **clientela en euskera**.
- En cuanto al **paisaje lingüístico** de los establecimientos, en un **35%** el euskera tiene una **presencia importante** (puntuación entre 8 y 10 sobre 10 de máxima). El 75% logró una puntuación por encima del 5.



LEHEN HITZA / PRIMERA PALABRA

- Euskaraz - En euskera
- Gaztelaniaz - En castellano
- Bestelakoak - Otros



ERANTZUNA / RESPUESTA

- Euskaraz - En euskera
- Gaztelaniaz - En castellano
- Jendaurreko arretarik gabe - Sin atención presencial



ARRETA EUSKARAZ / ATENCIÓN EN EUSKERA

- Bai, ordutegi osoan / Sí, en todo el horario
- Bai, baina ordutegi osoan ez / Sí, pero no en todo el horario
- Ez - No
- Jendaurreko arretarik gabe / Sin atención presencial

KAISHOP KANPAINA, EUSKARAZKO KONTSUMOA SUSTATZEKO

KAISHOP!

Erosi euskaraz Getxon
Compra en euskera en Getxo

CAMPAÑA KAISHOP, PARA IMPULSAR EL CONSUMO EN EUSKERA

Bizkaiko beste herri batzuekin elkarlanean antolatzen dugun kanpaina. Hiru helburu ditu: euskarazko kontsumoa bultzatzea, txikizkako merkataritza indartzea eta Euskararen Lagunen Sarea sustatzea.

Une honetan motorrak berotzen ari gara, 2023ko ekainean kanpainaren beste edizio bat egingo da eta!

2022an herriko merkataria eta ostalariak izan ziren kanpainaren irudia, eta hainbat euskarriren bidez egin zen zabalkundea. Bestalde, *merchandising* produktua banatu ziren Euskararen Laguna Saltokietan, eta "Bota prezioa!" lehiaketa antolatu zen.

Campaña que organizamos junto a otros municipios de Bizkaia. Tiene tres objetivos: impulsar el consumo en euskera, potenciar el comercio minorista y fomentar la Red de Amigos del Euskera.

En estos momentos estamos calentando motores, ya que... ¡en junio de 2023 se celebrará una nueva edición de la campaña!

En 2022 las personas comerciantes y hosteleras de la localidad fueron la imagen de la campaña, cuya difusión se realizó a través de diferentes soportes. Por otra parte, se repartieron productos de *merchandising* en los Comercios Amigos del Euskera y se organizó el concurso "Bota prezioa!".

EUSKARAZKO KONTSUMOA BULTZATZEA
IMPULSAR EL CONSUMO EN EUSKERA

TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA INDARTZEA
POTENCIAR EL COMERCIO MINORISTA Y LA HOSTELERÍA

EUSKARAREN LAGUNA SALTOKIEN SAREA SUSTATZEA
PROMOCIÓN DE LA RED DE COMERCIOS AMIGOS DEL EUSKERA

Kontsultatu kanpainari buruzko informazioa
Consulta la información de la campaña

www.getxo.eus/kaishop

KAISHOP!
Asko balio du!



EROSI EUSKARAZ, EROSI GETXON!

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak hainbat laguntza eskaintzen dizkie herriko merkatari eta ostalariei, euren establezimenduetan euskara txertatzeko:

- Dirulaguntzak errotulazioa euskaraz edo ele bietan jartzeko.
- Doako itzulpen-zerbitzua, bezeroentzako edozein testu euskaratzeko (karteletarako mezuak, menuak, sare sozialetarako testuak...).
- Doako kartel-zerbitzua.
- Material elebidunak (fakturak, zabalik/itxita kartelak...).
- Hizkuntza-aholkularitza eta bisita pertsonalizatuak.

¡COMPRA EN EUSKERA, COMPRA EN GETXO!

El **Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Getxo** ofrece diversas ayudas a los comercios y a la hostelería de la localidad, para incorporar el euskera en sus establecimientos:

- Subvenciones para poner rótulos en euskera o en bilingüe.
- Servicio gratuito de traducción de textos dirigidos a la clientela (mensajes para carteles, menús, textos para redes sociales...).
- Servicio gratuito de cartelería.
- Materiales bilingües (facturas, cartel abierto/cerrado...).
- Asesoramiento lingüístico y visitas personalizadas.

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA EUSKARAZ 2022



Dirulaguntzak
Subvenciones

18

Itzulpenak
Traducciones

150

Maketazioa
Maquetación

548

Materialak
Materiales

251

Aholkularitza - Bisitak
Asesoramiento - Visitas

562

*Errotulaziorako dirulaguntzak = 18 establezimendu, 46 errotulu (35 euskaraz, 11 ele bietan)

*Subvenciones rotulación = 18 establecimientos, 46 rótulos (35 en euskera, 11 en bilingüe)

Zerbitzu hauek urte osoan zehar dituzte eskura-garri Getxoko saltokiek.

Horietakoren bat eskatu nahi baduzu, deitu **688 665 112** telefonora, edo idatzi gehi@getxo.eus postara.

Informazio gehiago: getxo.eus/eu/katalogoa

Estos servicios están a disposición de los negocios de Getxo durante todo el año.

Si quieres solicitar alguno de nuestros servicios, puedes llamar al **688 665 112** o escribir a gehi@getxo.eus.

Más información: getxo.eus/es/katalogoa

Eman hegoak euskarari!

¿SABES QUE EN 5 AÑOS HEMOS LLEGADO A 255 COMERCIOS EN LA RED DE AMIGOS DEL EUSKERA DE GETXO?

ESPECIAL
MARZO

2023



Getxo
bizi ezazu
Euskara Zerbitzua

LA RED FUNCIONA COMO PUENTE ENTRE LA CLIENTELA Y LOS NEGOCIOS QUE USAN EL EUSKERA EN SU DÍA A DÍA

255 empresas que cuidan el euskera en su día a día y hacen el esfuerzo de usarlo en sus negocios, rotulación, escaparates, con la clientela, proveedores...
255 empresas que han firmado el compromiso a favor del euskera.

Euskararen laguna saltokia
Comercio amigo del euskera



Consulta el mapa interactivo y descubre los Comercios Amigos del Euskera de Getxo

www.getxo.eus/euskararenlaguna

El 33,53% de la ciudadanía de Getxo es vascoparlante, y el 23,12% lo entiende. En total, más de 40.000 personas

¡Prueba a hablar euskera en tus compras! ¡Te llevarás más de una sorpresa!

255 establecimientos forman parte de la Red de Comercios Amigos del Euskera



UNAI

Ferretería Igeldo Romo

¿POR QUÉ ES EN EUSKERA TU PRIMERA PALABRA?

Cada día, al saludar a la gente en euskera me doy cuenta de que es capaz de hablar en euskera más de lo que cree. La clientela sabe que soy euskaldun, y se me dirige en euskera cada vez más.

Clienta de Harri Taberna
Andra Mari

¿NOTAS MAYOR USO DEL EUSKERA EN LOS COMERCIOS?

Creo que ha aumentado el uso del euskera en los saludos y las conversaciones cortas. Pero aún tenemos que esforzarnos para mantener conversaciones más largas en euskera. Quienes sabemos deberíamos usarlo más.



ARI



IZASKUN

Ajuria Taberna Algorta

¿CÓMO AYUDAN INICIATIVAS COMO KAISHOP?

Ayudan a fomentar el consumo en euskera, si la ciudadanía conoce la campaña se anima más a hablar en euskera. Es importante que más gente conozca estas iniciativas.

Cliente de Perretxiko Haurreskola
Las Arenas

¿QUÉ TE PARECEN LOS SERVICIOS QUE OFRECE EL AYUNTAMIENTO A LOS NEGOCIOS?

Bien, sirven de ayuda. Se ve que el Ayuntamiento apoya al sector, hay más tiendas familiares que en otros sitios. El Txantxangorri del Euskera se ve por muchos negocios en la calle. Aunque haya margen de mejora se agradece el trabajo hecho.



IKER